

Al N. P. Leku Enparauka

Arruti'tar Andoni Aba

LUKAINKA

IPUIA

- Tolosa'ko Euskal-jelen bitartez -

-- Euskalerrriaren alde'k egindako --

--- batzeldian, lendabiziko sarla ---

Irebazi zuan ipul onek 7'g. gailan.



DONOSTIA'N

MARTÍN, MENA Y C.^{as} REN ECHEAN

Fuenterrabía, 14, beko gelan

1913

ATV
5.118



M- 17553

R- 39372

Dr. Lucas de Bompianen

7.X.1913.

ATV

5.118

Arruti'tar Andoni Aba

LUKAINKA

IPUIA

- Tolosa'ko Euskal-jaien bitartez -

-- Euskalerrriaren alde'k egindako --

--- batzaldian, lendabiziko saria ---

Irabazi zuan ipui onek 7'g. gelan.




DONOSTIA'N

MARTÍN, MENA Y C.'REN ECHEAN

Fuenterrabía, 14, beko gelan

1913





LUKAINKA

IPUIA

Tolosako Euskal-jaien bitartez EUSKALERRIAREN ALDE'k egindako batzaldian, lendarbiziko saria irabazi du ipui onek 7'g. gaian.

- ¿Etorri al dek Ama?
- Ez, eta etzekiñat etorriko dan ere.
- Lau t'erdietako irten balu Zarauztik...
- ¿Ez agon tsarra! ¿Nola nai uken ori? Irurak izango itunan ara eldu daneko; etzekiñat zenbat eginkizun arautu bear dizkin; bada-kin gañera ango Leketsean (1) aitortzeko asmoa zeramala...
- Bai, biar Ama Neskutsaren Sorkundea (2) dek-eta...
- Lau t'erdietako ezin amaituko zizkiñan ba ainbeste gauza.
- Egia diok.
- ¿Badakin zer ordu degun?
- Seirak alde.
- Zazpiretako agertzen ez bada, berari ez itsogoteko esan din.
- ¿Ordu bete luzea oraindik! Aspertuko gaituk.
- ¿Ez daukan zer egiñik? ¿Antolatu alden aparía?
- Or zeukat lapikondokoa, baita esnia ere egosita pertzian...
- ¿Eta bi lukainka mutur auek...?
- Tsikiena batentzat. Eta andiena, Ama datorrenian, erdibituta bientzat izateko oldoztua (3) zeukat.
- ¿Eta ez badator Ama?
- Orduan... ipuirik ederrena oraintse asmatzen duanarentzat.

- (1) Convento de Religiosos.
- (2) Concepción de la Virgen.
- (3) Pensado.

—¡Ez den ateraldi makala! ¿Nai den asi?

—Ekin eiok euk.

—Adi zan ba burura datorkidan au.

* * *

Ludi (1) osoko jaun eta jabe, ta biztanle (2) guztien berdinga-beko nagusia zalako ustez, aizez puztuta arro-arro zebillen bein batean leoia. ¿Bai al da, zion bere buruari, bai al liteke ni bezin galant, eder, sendo ta irme (3) danik? ¿Zeñek nere aunditasuna? ¿Nork nere almen (4) eta indarrak? Ez dago nere atzaparrak zatitu ta nere letagiñak zeatuko ez luteken gauzik. Naikoa da nere orroi bat abere tsiki ta andiak izututa utzitzeko. Aski ta naikua naiz neu bakarrik. Beste guztiak nere bear izan arren, ez det nik inoren bearrik. —¿Zeñek daki?—erantzun zion leoiaren bakarrikzeta bere orma zulotik aditu zuan sagu tsiki batek. —¡Ire bearra!—irri-barrez esan zuan leoiak. Algara ta amorrua bat-batean etorri zitzaizkion. —Baña ¿bai al zan inor eguzkiaren azpian bere aunditasuna ta agintia (5) ez aitortzeko arpegia zeukanik? Aski naiz ni, len baño arroago jarraitu zuan. Beste guztiak nere bear izan arren, ez det nik inoren bearrik. —¿Zeñek daki? tsistu su, zoli (6) baten eran erantzun zion berriro sagu zirtzillak. (7) Baña tsimista baño ariñago ezkutatu bear izan zuan bere burua, suak artutako leoiaren atzaparretatik iges egiteko.

Egunak juan ta egunak etorri, kaiola batean arkitu zuan goiz batean bere burua leoiak. Gizajoa lo zegon bitartean atsitu zuten eiztari azkar bik. ¡Aren orroak eta marroak! Irakiten zeukan odola, aotik bitsa zerion, eta bi tsinpart gorri-gorrien antza zeukaten aren begiak. ¡Eta dana alperrik! ¡Orduantse bai artuko zukela poz-pozik norbaiteren laguntasuna! Amorruez itxututa zegon da etzizuan

(1) Mundo.

(2) Habitante.

(3) Firme.

(4) Potencia.

(5) Autoridad.

(6) Sonoro.

(7) Desvergonzado.

ikusten kaiola bazterrean lanean ari ziran bi sagu; ez ere aditu bere marroakin aiek ateratzen zuten otsa. Alako batean begiratu zuan zoko artara, ta bai ezagutu ere orma zulotik itzegin zion sagua. —¿Zer ari aiz or?—galdetu zion leoiak. —¡Begira!—erantzun zion saguak, bere ortz zoliakin ebakitako ola erakutsirik. —¡Eskerrik asko! esan zuan leoiak kaiola lagatzen zuan bitartian, baita onela jarraitu ere, basoruntz abiadura artu baño len: Gaizki egin nuan. Ez da iñor isekatu (1) bear. Ez da iñor, aundia ta altsua izan arren, noiz edo noiz tsikienen eta ziztriñenen bear izan ezin litekeanik.

—Mutill, ez dek tšarra, baña ikusiko diagu zeinzentzat dan lukainka mutur luzea. Leoiena dek ipui au ere. Adi zak:

Aizez ondo puztuta zeraman bere buruba leoiak bein batean. Arpegiko narrua kendu, ta lepua biurrituko bazioten ere, etzuan sinistuko bera añakorik izan zitekeanik. ¡Ta berak onela sinistea naikua izan balitz! Beste guztiai au bera sinistuerazi nai... Baita aitortu biarko ere, lepo gañean edo lepo alboan iduki nai bazuan iñork bere burua, etzeukala lur osoak ura bezelakorik.

Onelako burutasun arroz bero-bero eginda, irten zan goiz batean bere leize zulotik. Mendira zijuazen ardi, larrera zijuazen bei, auntz, asto... mueta (2) askoko abereak arkitu zituan leoiak bere bidean. Guztiai ta bakoitzari itandu zien: ¿Zein da zuen nagusia? ¿Nor da zuen jaun eta jabea? —Gizona, gizona, erantzuten zioten danak. ¡Gizona, gizona! zion bere artean leoiak. ¿Zein ote da ori? Auše da abere ori ezagutzeko nai (3) bizi-bizia. ¿Bai ote da ni aña? Ez dek oraindik beintzat ni aña danik nere arpegiaren aurrean jarri. Ez da jarriko ere. Onela jarraitzen zion bideari *mar-mar* egiñaz, eta ikusi gabe oso urrean zeukan arte, alde batera ta bestera buztana zerabillen tšakur jostalaria. —¿Nor dek ire nagusia? —galdetu zion leoiak. —Atzetik datorren ori, erantzun zion tšakurak. —Eta ¿zein dek bera?—Gizona. —¿Ori al da gizona? ¿Tsaldan, tšatsšu, ziztrin, ezertarako ez dan ori al da gauza guztien jabea? Ez nerea beintzat. Ez bestiena ere emendik une batera...

(1) Burlar, despreciar.

(2) Especie.

(3) Desco.

Urreratu zan eta —¿I al aiz gizon altsu, abere guztien jaun eta jabea? —Bai igandik asita. —Orise dek berealase agertuko dana. —¿Burruka egin nai dek noski? —Bai. —Aserratu gabe burrukan ibiltzea oso parregarria dek. Aldendu ari pitin bat, eta jaurti izkia-gun alkarri datorzkigun gaiztakeriak, aserratu arte, orduan etorriko gaituk eskuetara. —Ez dek gaizki esana.

Aldendu ziran, baita ekin ere leoiak zekizkian eta etzekizkian likiskeri ta zitalkeriak gizonari jaurtitzen. —¿Bukatu dek?—galdetu zion onek ura isilldu zanean. Eta su-arma bat ari begira ipiñirik, «Iretzat» deadar egin zion durrundara beldurgarri bat aditzen zan bitartean... Buru zatitutik odola zeriola lurrera erori zan leoi panparroia. Gelditu zitzaion bizitz-unea onuratu (1) zuan esateko: —¿Geiago aiz! Ez dek nere ortz eta atzaparrik, baña ire bekoki garbi ta begi argi oietan eskutapenen (2) bat badaukak...

—¿Zer deritzok?

—Neska, ez den irea ere ain tsarra. Beste ipui batek erabaki dezala zeñentzat dan lukainka muturluzea.

—Begira eiok sarri, or zebillek katua ta...

* * *

Bi anai ziran oso langille, zintzo, ta alkar maite-maite zutenak. Gurasoak ill ondorean, beren etse zarrean morroi batekin egon ziran urte batzuetan. Baña Patsiri ezkontzeko era ta gogoa aurkeztu (3) zitzaizkion, eta auzoko neskats lerden eta tsukun Josepakin kabi berria egitera juan zan. Lengo etse-zar-otzean gelditu zan Jose bere morroiarekin.

Burutasun eder-eder bat etorri zitzaion alako batean Patsiri, baita azaldu ere emazteari. —Aizu, Josepa, gez al litzake ona izango tamal (4) ematen ditan gure anai gizajo bakarrik dagon orri zerbañt laguntzea? —Aldegunean berari sorostutzeko (5) beti prest nagola badakizu. —Ez det lagunik bear bururatu zaidana egiteko,

(1) Aprovechar el último momento.

(2) Misterio.

(3) Presentarse.

(4) Lástima.

(5) Socorrer.

zuri lendabizi agertzea ondo zala iduritu bazait ere. —¿Zer asmo-tan zaude? —Orra ba, atzo ta gaur ebakitako gariak zabal-zabal dauzkagu soroan, eta besarkada bat edo beste ari eraman nai niozke, baña berak igerri gabe, osterantzean ez lizkidake artukota. —Bapo, gizona. Tsiro (1) ta beartsuai emandakoak ez du inor arlotu.

Illunduta geroşeago egin zuan Patsik oldoztuta zeukana. Baña bere arritasuna bigaramonean lazta baten utsunerik ere soroan arkitu etzuanen! —¡Auşe dek auşe!... Gaur eramango dizkiat berriro bart-arratsean aña besarkada... Unrengo goizean atzegunian (2) aña lasto ta gari zeuzkan bere soroan. —¡Onelakorik! Ementse geratuko nauk, esan zuan Patsik, eskutapen au ikusi ta igarri arte.

Gau artako amaiak izango ziran gitsi gora bera, gariz zama-tuta (3) bere sorora zetorren gizon bat nabaitu (4) zuanean Patsik. —¡Gabon! —esan zion onek —Patsi. —¿I al aiz, Joşe? —¿Zer buru-tasunek akar onera? —Ireak ber-berak nunbait... Bakar agon ez-kero, iri nik laguntzea ez dek arritzeko gauza... —Entzun zak nola oldoztutzen nuan nik: Nere anaiak sendia (5) dauka, orantse erne zaizka bi landaretsu. Politak eta etsia alaitzen diotenak dira, baña aiek elikatze (6) ta apaintze (7) nik baño geiago bear...

—Mutil, ipui ederra dek ori.

—¿Etsi den? Neretzako orduan lukainka...

—Etsoron zak apur bat, oraintse zetorkidak beste bi anaien ipui bat eta...

* * *

Gose-gose ziran anai bik etzeukaten jateko arrautza bat baizik.

—Nerea dek, esan zuan Andresek, i baño zarragua nauk-eta. —Onetarako ez dik adiñak (7) eskubiderik ematen —erantzun zion

(1) Pobre.

(2) La víspera.

(3) Cargado.

(4) Notar.

(5) Familia.

(6) Alimentar.

(7) Edad.

Pellok. — ¿Uste aldek gaztiak ez degula urdallik? (1) ¿Ez dek aitu oster a iñoiz onelako gauzatsoak ume ta gaztientzat izaten dirala?

Zirrika ta mirrika era onetan jardun zuten nekatu arte, euren ezdabaida (2) bukatu eziñik. Ara azkenian zer erabaki zuten: — Guazen lotara, esan zion Pellok bere anaiari, ta amesik ederrrena egiten duanarentzat izan dedilla arrautza. Guazen.

Egun sentiko argi biguñak begiak idiki ziozkaneko, asi zan deadarka Andres: — Ai zak, nerea dek arrautza. Ona baño obeagoa dan ames eder-ederra egin diat. Aingeruen egatan nijuala uste izan diat, baita igaro ere gau guztia zeruko doatsuen artean. — Bai, eta ara oakala ikustean, esan diat nik: Ez dik onek lurreko arrautzik bear. Jetsi nauk ba berealaxe sukaldera, baita jan ere gure arrautza...

— Bapo, neska, ja, ja, ja.

— ¿Lukainka...? ¿Non dek gure lukainka?

— ¡¡Ooo!!

— ¡An, an...! Zapaira zijuak ortzetatik zinzilika duala. ¡Zapi! ¡zapi!

— ¡Arrapa zan! ¡Lertuko al den bertan gure lukainka mutur luzea jan digun katu madarikatu ori!

— ¿Zer egingo diagu orain?

— Apaldu; onezkero ez den Ama etorriko ta...

— ¿Zeñentzat izango dek gelditu dan lukainka?

— Erdibituta pakia.

(1) Estómagu.

(2) Disputa.



OLA-GIZONA

Tolosako Euskal-jaien bitartez Eus-
KALERRIAREN ALDE'k egindako batzal-
dian, lendabiziko saria irabazi du eresi
onek 9'g. gaian.

Ederki gure lana dihua;
Nere gogua
Gañezka daukat atsegiñez:
Burnia degu bikañ-bikaña,
Degu nai aña...
¿Santzo gozo bat nork egiñ ez?

¿Doakabeak oso gerala?
¿Illuna dala
Beltz-beltz daukagun bekokia?
Aditu, gizon koldar (1) zerana,
Aditu dana
Ola-gizonen eresia.

Gipuzkoako meatzetatik,
Onenetatik,
Etorri zaigu gaurko mia:
Zepa (2) gitxi du, menasta (3) naro.
¡O zein oparo
Jasoko degun lan-saria!

(1) Cobarde.

(2) Escoria.

(3) Metal.

Ez ari, mutill, izan meatza; (1)

Ugari ikatza

Jaurti zak gure sutegira.

¡Aspoak gora! t'arretaz ori

Noiz gori-gori

Jarritzen zaigun i begira.

Oratzar (2) galda-galdan agona,

Etorri ona

Jartzera aguro lirañ-lirain;

¡Amaika astindu polit artuko

Dituk orduko,

Gabi (3) astuna dek ire gain!

Asten danian indarrez bera

Gora beera

Dana zatitu bearrean,

Ire tsatarrak (4) kenduko dizkik,

Utziko ez dik

Loi ta zazkarik (5) bularrean.

Zartada miñak biotzak ditu

Beti garbitu,

Lagarik zindo ta sendoak;

Izanik arren gogor-gogorra

Bere zigorra

Artzen du gure Jaungoikuak.

Gabia piskor zaigu gaur ari,

Dakar ugari

Urolak ur tsit indartsua;

¡Aurrera, mutill, au dek sasoi!

¡Au dek agoia (6)

Gutsitan degun erakua!

(1) Escaso, tacaño.

(2) Ora = masa.

(3) Maza.

(4) Residuo.

(5) Residuo.

(6) Masa de hierro fundido.

¿Aserre beti bizi gerala?
¿Illuna dala
Ola-gizonen arazoa?
Ez dek iretzat, gizon tsaldana,
Emengo lana,
Emengo gure par-gozoa.

Ikaraz ormak jarritzen ditun
Etorri ta jun
Emen dabillen durundia
Eresi bigun baten antzera
Neretzat bera
Orain da guztiz pozgarria.

Ez nau beroak ikaratutzen,
Ez naute izutzen
Emengo tsinpart, su ta garrak;
Beltza badaukat nik arpegia,
Nagola argia
Argiro dio nere parrak.

Ez dauzka neskats gorulariak
Bere begiak
Dauzkagun bezin poz eta alai:
Ark duan eran kirru (1) tsuria
Orain burnia
Guk ere irundu genduke nai.

Izadiaren indar altsuak
Gure beruak
Menperatutzen ditu sarri:
Añ ospetsu dan gogortasuna
Legun-leguna
Begira nola degun jarri.

(1) Copo.

Garbitutzeko baso zatarra,
Kentzeko larra
Burnia dute bear oso
Ikazkin eta nekazariak,
Gizon guztiak
Bizi badute nai eroso.

¿Tsukundu leike tsara abartsua,
Pizti lekua,
Aizkora sendo gabetanik?
¿Jaurti gentzake zugaitz-enborra,
Burni gogorra,
Erdibitutzen ez badek ik?


¡Zuen erraiak, lur ekoitzleak, (1)
Nola goldeak
Erraz oi ditun zabal jarri!
Gero soroak arto ta gariz
Mardul, ugariz
Apaintzen dira zoragarri.

Emen egiten dira dardaiak,
Izkilllo-gaiak
Zorrotz-zorrotzak et'ugari:
Sartu, kupida gabe buztartu,
T'azpian artu
Nai gaitun etsai dollorrari.

¿Doakabeak oso gerala?
¿Illuna dala
Beltz-beltz daukagun bekokia?
Gezur au ez dek esango gero
Entzun ezkerro
Ola-gizonen eresia.

ARRUTI'TAR ANDONI ABA.

(1) Fétil.



EUSKALERRIAREN ALDE

Esta Revista se publica dos veces al mes, y cada entrega consta, por lo menos, de 48 páginas divididas en dos secciones. La primera sección, de 32 páginas, aparece redactada en castellano, y la segunda, titulada **Euskal-Esnalea**, de 16 páginas, se halla redactada casi exclusivamente en enskera.

Estas dos secciones llevan paginación independiente con objeto de que á fin de año puedan ser encuadernadas en volúmenes distintos.

El precio de suscripción por año es:

Suscripción general.....	20 pesetas
Para los socios de la Sociedad Euskal-Esnalea	10 pesetas
Para los extranjeros.....	25 francos

Número suelto: **Una peseta**

Para cuanto se relacione con la REVISTA dirigirse al
Director **D. Gregorio de Mujica**, MAYOR, 32,
FUENTERRABIA.